

ALTERNATIBEN HERRIA

AURKEZPEN PUBLIKOA

KATAKRAK

MARTXOAK 15. 18.00H

There is no alternative? Hemen bai!

1968an, duela 50 urte, jende xeheak mundua inarrosi zuen berriz ere. Frantziako industriako langileen grebek herrialdea gelditu zuten: soldata igoera ikusgarriak lortu zituzten. Vietnamgo arroz alorretako nekazariak munduko armada boteretsuenari aurre egiten zioten eta Mendebaldeko gazteek gerraren eta inperialismoaren aurkako aldarria eramaten zuten kale eta campusetara Alemania Mendebaldean, Ameriketako Estatu Batuetan, Mexikon.

Munduko boteretsuek, gutxiengo aberatsenak, dar-dar egin zuen eta kontraerasoa jarri zuen martxan. Kapitalismoaren baitan eskubide sozial batzuk bermatu eta nolabaiteko aberastasunen banaketa egiten zuten sistemen kontra jo behar zen. Lehenengo kolpeak Hego Ameriketara jo zituzten hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera. Argentinako diktadura militarrek abian jarri zituen doitze planei esker 7 urtean muturreko pobrezia %9 izatetik 1982an %40ra igo zen. Gutxi dutenei kendu asko dutenei emateko. Hauteskundeen bidez hautatutako Salvador Allende militarki boteretik kendu eta milaka lagun hil eta desagerrarazi ondoren, Txileko diktaduran Hayek, Friedman eta Hargeberren ekonomia politikoa jarri zuten martxan. Baina neoliberalismoaren aurpegi behinenak Erresuma Batuko Margaret Thatcher eta Ameriketako Estatu Batuetako Reagan izan ziren: zergak jaitsi zituzten, estatuaren baliabideak pribatizatu zituzten, eta, gainera, gizartearen existentzia zalantzan jarri zuten. Thatcher-en arabera mundua norbanakoek osatzen dute. Norbanakoak kontsumitzen du baina ez du inoren beharrik. Eta behar badu ordainduz aseko ditu bere beharrak. Thatcher, Reagan, Blair, Mitterrand, Felipe González.

Horregatik guk diogu baietz. Hemen posible dela. Izan gaitezkeela Thatcherren amesgaiztoetako bat. Kapitalismoak, merkatu libreak, merkatuak irentsitako gorputzek, globalizazioak, finantzen desregulazioak, industriaren deslokalizazioak, pentsio izoztuek, igotzen ez diren soldatek badutela alternatiba bat. Hilabeteotan ari gara lantzen eta Thatcherri, baina bereziki gure buruei eta auzokideei erakutsi eta irakatsiko dizkiegula dauzkagun alternatibak: bizitza duin eta anitzaren alde lan egiten duten sindikatuekin, herri mugimenduekin, gobernuz kanpoko erakundeekin, ekonomia sozialeko kooperatibekin, espazio autogestionatuekin, aisialdia beste modu batera pentsatzen duten guneekin.

Hemen bai! Posible da Alternatiben Herria! Bizitza burujabea eskubide osoz!

EL PUEBLO DE LAS ALTERNATIVAS

PRESENTACIÓN PÚBLICA

KATAKRAK

15 DE MARZO. 18.00H

There is no alternative? ¡Claro que hay!

Hace 50 años, en 1968, la gente humilde volvió a estremecer el mundo. Los trabajadores de la industria francesa pararon el país y obtuvieron subidas salariales espectaculares. Las campesinas de los arrozales vietnamitas desafiaron al ejército más poderoso del mundo y los jóvenes de Occidente, en sus calles y universidades mostraron la repulsa a la guerra y al imperialismo: desde la Alemania federal a los Estados Unidos de América, pasando por México.

Los poderosos, la minoría adinerada, tembló y puso en marcha su contraataque. Se acabó eso de asegurar ciertos derechos sociales en el capitalismo, de repartir algo la riqueza. Los primeros golpes vinieron en la Sudamérica de los setenta. La dictadura militar de Argentina hizo que en 7 años, de 1975 a 1982, la pobreza se disparara del 9% al 40%. Quitar a quienes casi no tienen para dárselo a quien lo tiene todo. Después llegó la hora de Chile: derrocaron a Salvador Allende, elegido en las urnas, a punta de fusil. Tras asesinar y hacer desaparecer a miles de personas, la dictadura de Pinochet puso en marcha las políticas neoliberales de Hayek, Friedman y Hargeber. Pero las caras más significativas estaban por llegar. En el Reino Unido Margaret Thatcher y en los Estados Unidos Reagan: bajar impuestos, privatizar recursos públicos y, además, cuestionar la noción de sociedad. Según Thatcher el mundo lo componen individuos. Individuos que consumen. Solitarios que pagan cuando algo necesitan. Thatcher, Reagan, Blair, Mitterrand, Felipe González.

Por eso, nosotrxs decimos que sí. Que aquí es posible. Que podemos ser la alegre pesadilla de Thatcher. Que hay alternativa al capitalismo, al mercado libre, a los cuerpos engullidos por el mercado, a la globalización, a las finanzas desreguladas, a las deslocalizaciones industriales, a las pensiones congeladas, a los salarios que no aumentan. Estos meses estamos aprendiendo para mostrar a Thatcher, pero sobre todo a nosotrxs mismxs que hay alternativas: desde el sindicalismo que apuesta por la vida digna y diversa, los movimientos sociales, con las ONGs transformadoras, con la economía social y solidaria, los espacios autogestionados, con los lugares que plantean un ocio de otro orden.

¡Hay alternativas! ¡El pueblo de las alternativas es posible!